

AMAIERARIK GABEKO AMETSAK

Kaixo!

Garazi naiz, 11 urteko neska ameslari aparta. Egunero, gualdean, bakarrik geratzen naizenean, nire barneko goxotasunean murgilduz, amesten hasten naiz. Ameslari amorratua naiz . Benetan disfrutatzen eta gozatzen dudala imajinatzen, irudikatzen, jolasten... Baina, gauzatxo bat konta behar dizuet, aspaldi honetan gauza bitxi bat gertatzen ari zait ametsekin. Sortzen ditudan ametsak ez dira bukatzen, esnatzen naizelako. Eta hori ez zen lehen gertatzen inoiz. Amets guztiak bukaera bat zeukaten, batzuetan ona, besteetan txarra, baina beti amaiera bati lotuta desegiten ziren. Oraingo ametsak ordea, airean zintzilik geratzen direla ematen du.

Amaitu gabeko amets guzti horiek irla batean pilatzen direla konturatu naiz. Leku horretan, elkartzen eta nahasten dira nire irudimenean sortutako pertsonai guztiak. Kattalin, neskabila umezurtza, bere amaren bila zebilena, txuri beltz- dun katua sagu beltz eta handiaren atzetik zihoana, etxerik gabe gelditu zen pinguinoa bere lurrian izotza urtu zelako, astronauta izan nahi zuen txakurra, Laika moduan, gerrak gorrotatzen zituen metalezko zaldunak, nire lagunekin galdu nintzen gaztelu madarikatua, noraezean zebilen txori zoro taldea, amesgaitz bateko etxe zuri eta zaharra, hegan egin nuen zeru urdin argia, inoiz harrapatzen ez nuen itsasontzia, ostadarretik erori zen gurdia, marigorringo mezulari itsua, ... den denak daude, guztiak nahastuta eta galduta hantxe.

Ez nago ziur zertarako bildu diren uharte hartan. Nahasi nago nahaste-borraste honekin. Baina, nire zain daudela susmatzen dut. Begiak ixten ditudan bakoitzean niri begira ikusten ditut denak uharte hartatik, nik sortutako istorio bakoitzari irtenbide bat topatzeko. Amaiera bana.

Horretarako sormen handia beharko dut.

Lagunduko didazue?